

Negua aire librean

Joxean Agirre

Aurtengo neguko osasun leloa argia da: telelana eta aire libreko kirolak. Lanik egiten ez dugunontzat, etxeko lanak eta mendia. Herriko kiroldegitik itzuli bat egin nuen eta konplikatua ikusi nuen kontua: alde zurreko hitzordua, sarre-rako kontrolak, bizikletatik zintara eta handik arraunera eta handik pisuetara musukoarekin ibili beharra... Jakoba Errekondoren esaldiarekin gogoratu nintzen, «baratzea aire libreko gimnasia da», eta udal baratze bat eskatu nuen.

Ez naiz izan baratze zalea. Zahartzaroko ezintasunen ikur gisa ikusi izan dut beti. Norbaitek jubilatu eta baratze bat jarri behar zuela esaten bazidan, akabo! Pentsatzen nuen, «hireak egin dik». Bes-

talde, herri aldirietako baratzeak hiru-garren munduko irudi bat izan dira, frankismoaren garaiko ondare, plastiko, bidoi, burdina eta uralita anabasa bat, estetikoki deitoragarriak. Aurreiritziak aurreiritzi, aitzurrean ibili naiz eta nire frantziar jardina bat da, landare lerrokatuek marrazten dituzten irudi geometriko eta guzti. Arte natura bilakaturik edo alderantziz.

Jakoba Errekondok esan zuen halaber gaur posible den iraultza bakarria baratze zaleena dela, lurrarekiko lotura berreskuratzea alegia. Iraultza oso elitista begitantzen zait, bilbotar bakoitzari baratze bat ematekotan, Kantabria konkistatu beharko genuke eta.

Kontua da aire libreko bizimodua, outdoor kultura, modan jarri dela. Dato-

rren astean Getariako Irakurle Taldearen bilera egitekotan ginen eta seguru asko herriko plazan egingo dugula abisatu dit Uxue Alberdik. Prestatuta nengoela erantzun diot.

Goizero pantailari begira ordu batzuk eman ondoren (bezperan idatzitakoa ezabatzen gehienetan) mendi buelta bat egitera edo baratzerara noa. Han auzoko baratze zaleak aitzurra eskuetan dudala ikusten banau, «*¿Qué, trabajando?*» galdetzen didanean ni, Pio Barojak auzoko baserritarrari bezala, «*no, descansando*» erantzuteko gogoarekin geratzen naiz. Barojaren auzoko horrek arratsaldean Itzeako langela leihoa zabalik lanean ari zela ikusten bazuen, «*¿Qué, descansando?*», galdetzen omen zion eta «*no, trabajando*», erantzuten zion Piok. •

Pobreziaren izurria

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Euskal Herrian 400.700 herritarrek nolabaiteko pobrezia edo gizarte bazterketa pairatzen dute. Hori jaso du Gaindegia, pobrezia neurtzeko Europako markoaren metodologia bateko adierazleetan oinarrituta. Bitartean, munduko 20 pertsona aberatsenek beren ondasunen pilaketa areagotzeko baliatu dute pandemia.

Gaur da, hain justu, Pobreziaren eta Bazterkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Azken urteetan, areagotu egin dira etxebizitzako gastuen ordainketak atzeratuta dituzten herritarrak, neguan

berogailua piztu ezin dutenak, edo oinarritzko zenbait elikagai erosteko zailtasunak dituztenak. Eta covid-19ak lehendik zegoen gizarte bereizketa areagotu duela aintzat hartuta, egoera zaurgarrian zeudenak are okerrago daudela aurreikus daiteke.

Nazio Batuen Erakundeak, adibidez, nabarmendu du pandemiak «neurritz kanpo» eragingo duela emakumeen pobrezian. Lana galtzeko arrisku handiagoa dutelako, besteak beste, asko direlako turismoan, ostalaritzan eta etxeko lanetan aritzen direnak.

Eta izurriaren ondorioei aurre egiteko planez ahoa betetzen dutenak, industria eta sektore ekonomikoa suspertu behar direla diotenek, pizgarri ekonomikoak aipatzen dituztenek, ez dute lana galtze-ar dauden horientzako onurarik planteatzen. Entzun dugu langileek hautatu beharko dutela kaleratzeen eta soldata jaitsieren artean, solidarioak izateko garaia dela eta protestek eta grebek ez dutela laguntzen. Esan diezaiotela hori covid-19an positibo eman eta garbitzaile edo zaintzaile lana galtzeko beldurrez dagoenari. •